

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

5748

IRAGARKIA, 2024ko azaroaren 29koa, Industria Administrazioko Arabako lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Vitoria-Gasteizko udal-mugartean dagoen «Fragaria Solar» eguzki-instalazio fotovoltaikorako (4,6 MW) eta hari lotutako azpiegituretarako aurretiko administrazio-baimena.

48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan (48/2020 Dekretua, martxoaren 31koa, zeinaren bidez arautzen baitira energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak) eta 24/2013 Legearen 53.1 artikuluan (24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoari buruzkoa) ezarritako ondorioetarako, jendaurrean jartzen dira «Fragaria Solar» instalazio fotovoltaikoaren eta hari lotutako azpiegituren proiektua.

Espedientea: 01-GE-Y-2024-00046.

– Eskatzailea: Ventaja Solar 8, SL. (IFK: B88543574; helbidea: Paseo Club Deportivo z.g., 4. eraikina, 1. solairua, 28223 Pozuelo de Alarcón, Madril).

– Eskararen helburua: aurretiazko administrazio-baimena.

– Xedea: energia elektrikoa ekoiztea gero saltzeko den teknologia fotovoltaikoaren bidez.

– «Fragaria Solar» proiektua:

a) 10.452 modulu, 575Wp-ekoak.

b) 23 inbertsore fotovoltaiko, 200kW-koak. Guztira 4,6 Mwn-ko potentzia du.

c) 2.500 kVA-ko transformadorea duten transformazio-zentro 2.

d) Transformazio-zentrotik sekzionamendu-zentro partekatuaren sarrerarainoko lurpeko eba-kuazio-linea. 1.511 m luzera duena.

– Tartean dauden udal-mugarteak: Vitoria-Gasteiz. 36 industrialdea, 137, 138, 139 eta 140 lurzatiak.

– Husteko puntua: 30 kV-eko kokaleku berria Vitoria TAn, banaketa-sarean.

– Eguzki-instalazioak hartzen duen azalera: 4,99 ha.

– Aurrekontua (BEZik gabe): 3.705.809,36 euro.

Industria Administrazioko Arabako Lurralde Ordezkaritzak eman behar dizkie proiektu hauei aldeaz aurreko eta eraikitzeko administrazio-baimenak, eta gero jendaurrean jarri behar dira.

2024ko abenduaren 16a, astelehena

Hori guztia argitaratzen da, interesdunek eta, oro har, herritarrek bi proiektuaren gaineko dokumentazioa azter dezaten 20 egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratzen den egunetik aurrera, Industria Administrazioiko Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, Vitoria-Gasteiz) eta Interneteko www.euskadi.eus webgunean (Energia eta meategiak/Energia ataleko proiektuaren jendaurreko informazioan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/energia-meategiak/hasiera/>), eta egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 29a.

Industria Administrazioiko Arabako lurralde-ordezkaria,
JOSÉ MIGUEL MUÑOZ SAN MARTÍN.